

# Haurren lagun diren hiriak Aintzatesteko IX. Deialdiaren oinarriak

2019-2020  
Deialdia



Ciudades  
Amigas  
de la Infancia



Child  
Friendly  
Cities  
Initiative



### 1. edizioa

2019ko iraila

© UNICEF COMITÉ ESPAÑOL  
[www.ciudadesamigas.org](http://www.ciudadesamigas.org)

### Egilea

UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA

### Edizioa

UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA

Haurren aldeko Politika eta Sentsibilizaziorako Zuzendaritza  
Haurren aldeko Tokiko Politika eta Partaidetzako Saila  
Mauricio Legendre 36. 28046. Madril.

### Diseinua eta maketazioa

Grupo Cooperativo Tangente

### Aliatuak



Argitalpen honi eta atxiki zaizkion dokumentuei (eranskinak eta baliabideak) buruzko eskubide guztiak UNICEF Espainiako Batzordearen Fundazioarenak dira. Argitalpen honen edozein zati erreproduzitu daiteke beharrezko baimenarekin. Horretarako, hau da kontaktua:  
[ciudadesamigas@unicef.es](mailto:ciudadesamigas@unicef.es)



# Laburdurak, siglak eta glosarioa

<b>CFCI</b>	Haurren Lagun diren Hiriak Nazioarteko Ekimena (UNICEF da ekimenaren buru)
<b>Haurra eta nerabea</b>	18 urte baino gutxiago dituen pertsona
<b>HetaN</b>	Haurra eta nerabea
<b>HEH</b>	Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena
<b>Tokiko gobernua</b>	Eremu geografiko bateko administrazio-erakundea; hiri batekoa, herri batekoa, mankomunitate batekoa, diputazio bat, uharte bateko kontseilua edo uharte bateko kabildoa izan daiteke
<b>GIH</b>	Garapen Iraunkorrerako Helburuak
<b>HNTP</b>	Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana
<b>HNPO</b>	Haurren eta Nerabeen Partaidetza Organoa
<b>Haurren eskubideen ikuspegia</b>	Marko kontzeptual bat da, araugintza, plangintza eta legegintzako eskabideetarako orientazio gisa balio behar duena, bereziki haurren (0-18 urte) eskubideak sustatu eta babesteko. Giza eskubideak oinarritzat dituen ikuspegiak esan nahi du, garapenerako politikak eta programak formulatzean, giza eskubideak gauzatzeak izan behar duela helburu nagusia. Eskubideak errespetatzea, babestea eta betetzea da helburua, haurtzaroaz ari garenean. Hala, eskubideak betetzeko, beharrezkoa da haiek helmenean izatea eta behar diren neurriak finkatzea.
<b>Gardentasuna eta Kontu Ematea</b>	<p>Gardentasuna hauxe da, jardun publikoaren informazio-fluxu eraginkorra, edo informazioa modu seguru, ulergarri eta egoki batean lantzeko prozesua, kontuan hartuta herritarrei kontu emateko tresna fidagarria dela.</p> <p>Kontu Ematea ingelesezko “accountability” terminoan du jatorria ekintza batzuk dira, herritarrentzat lagungarriak izan behar dutenak erakundeak bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko duen ahalmena ebaluatzeko.</p>





# Aurkibidea

Aurkezpena

– 8

Haurren Lagun diren  
Hiriak aintzatesteko 2019  
-2020 deialdia

– 10

UNICEFen inguruan

– 12

Zer da Haurren Lagun  
diren Hiriak Ekimena?

– 14

2030 Agenda eta  
Garapen Iraunkorrerako  
Helburuak

– 18

Haurren Lagun diren  
Hiriak aintzatespena  
lortzeko baldintzak

– 20

Hautagaitzak  
balioztatzeko  
irizpideak

– 30

Gobernu lokalaren eta  
UNICEF Espainiako  
Batzardearen konpromi-  
soak aintzatespena lortu  
ostean

– 34

Eranskinen  
zerrenda

– 38

Orientatzeko eta  
kontsultarako baliabideen  
zerrenda

– 39

# Aurkezpena

## Haurren Lagun diren

**Hiriak:** funtsezko apustua haurren eskubideen ikuspegia tokiko eremuan sustatzeko





“Estatu Kideek Hitzarmen honetan adierazten diren eskubideak errespetatuko dituzte eta dagokien jurisdikzioaren pean haur bakoitzarengan aplikatzen direla ziurtatuko dute, bereizketarik egin gabe, hau da, edozein izanda ere arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, egoera ekonomikoa, eragozpen fisikoak, jaiotza edo haurraren, haren guraso edo legezko ordezkoen beste edozein egoera”.

## – (2. artikulua. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena)

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH) 1990ean berretsi zen eta [1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen indarrean](#) Espainiako Estatuan. Garai hartatik aurrera, Estatuak, bere gobernu-maila guztietan, konpromisoa hartu zuen administrazioan, legegintzan eta beste edozein arlotan behar ziren neurri guztiak hartzeko, bertako lurraldean bizi diren haurren eskubideak osorik betetzen direla bermatzeko (HEHko 4. artikulua).

Esparru horretan, UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Lagun diren Hiriak ekimena sustatu du Espainian: tokiko gobernuen konpromisoa bultzatzeko estrategia **haurren eta nerabeen eskubideak bete daitezten**, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarri bezala.

**Haurren Lagun diren Hiriak** aintzatespenak haurrak eta nerabeak agenda politikoaren eta sozialaren erdigunean kokatzeko tokiko gobernuak egindako ahaleginaren balioa nabarmentzen du. Aldi berean, behartu egiten du haurrei agenda horietan protagonismoa ematera, haiei entzutera, eta beharrezko ekintzak burutzeraz haiek hartzen dituzten erabakiak gauzatu daitezten, haurren eta nerabeen partaidetza-gunetan.

**Haurren Lagun diren Hiriak** izateko, konpromiso politiko bat ez ezik, ekintza eta neurri zehatz batzuk ere hartu behar dira, baliabideez hornituak; gainera, xedeak ezartzea eskatzen du, haurren eta nerabeen ongizatea hobetzeko, epe labur, ertain eta luzean. Ikasteko eta eraldatzeko prozesu baten hasiera da, haurren bizitzan benetako inpaktua duten politikak ezartze aldera. Hiri bat edo herri bat aliatuekin eta hurrekin elkarlanean eraikitzea da, non agerikoak eta benetakoak izango diren haurren eskubideak. Hori guztia, egoera ahulenean dauden haiengan fokua ipinita, haur bakar bat ere atzean ez uzteko konpromisoa hartuta, haietako bakoitzari aukera berdinak eskainiz bere ahalmen guztia garatu ahal izan dezan.

Edizio berri honetan, Haurren Lagun diren Hiriak ekimenak aurrerapauso bat gehiago eman nahi du, haurrei lotuta ezarrita dauden tokiko politiken kalitatea hobetze aldera, tokiko gobernuari haurren alde burutzen dituzten ekintzak neurtzen eta haien segimendua egiten lagunduko dieten informazioa kudeatzeko tresna bat eskaintzean.

---

## – Haurren aldeko Tokiko Politika eta Partaidetzako Saila UNICEF Espainiako Batzordea

# Haurren Lagun diren Hiriak aintzatestekeo 2019 -2020 deialdia





## **Bi urtean behin, UNICEF Espainiako Batzordeak deialdi bat irekitzen du tokiko gobernuak aintzatesteko helburuz; horretarako, beren herrietako haurren eta nerabeen eskubideekin hartua duten konpromisoa frogatu behar dute.**

Aintzatespenak **lau urteko indarraldia** du eta berau lortzeko tokiko gobernuak bete egin behar ditu dokumentu honetan bildutako oinarrietan ezartzen diren baldintzak. Gainera, hainbat konpromiso hartu behar ditu, hitzarmen bat sinatzean, besteak beste. Bestetik, aintzatespena jaso eta bi urteren buruan bitarteko txosten bat entregatu behar du, haurren eta nerabeen bere tokiko planaren (HNTP) ezarpenean eman dituen aurrerapausoak jakitera emateko.

Lau urteak amaitutakoan, aintzatespena iraunarazi nahi duen tokiko gobernuak berriro aurkeztu behar du deialdira **berritzeko**.

Orain arte, Espainiako Estatuan, Autonomia Erkidego guztietan eramaten da aurrera ekimena. Izan ere, [277 tokiko gobernuk](#) dute aintzatespena, kontuan hartuta Espainian bizi diren haurren eta nerabeen % 42 inguru adierazten duela kopuru horrek.

Dokumentu honek Haurren Hiri Laguna aintzatespena jasotzeko edo berritzeko deialdiaren IX. edizioko oinarriak jasotzen ditu, eta bertan biltzen dira datak, jarraibideak, informazioa eta tokiko gobernu batek aurkeztu beharreko dokumentazioa Haurren Hiri Laguna aintzatespena lehen aldiz lortzeko, edo berritzeko. Dokumentuari **Eranskin** batzuk gehitu zaizkio, deialdi honetan eskatutako informazioa betetzen laguntzeko, hau da, aipatutako oinarrietan eskatzen den dokumentazioa.

Azkenik, izangaiek **baliabideen zerrenda** bat topatuko dute; orientazio edo gida batzuk dira, deialdi honetara aurkezteko tokiko gobernu batek kontuan hartu behar dituen alderdi desberdinei buruzkoak. Baliabide horiek ez dira arautzat hartu behar, inspiratzeko eta laguntzeko diren dokumentutzat baizik.

# UNICEFi buruz




## UNICEFek, Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak, 73 urte baino gehiago dihardu lanean haurren eskubideak defendatzen.

1946an eratu zen, Europan Bigarren Mundu Gerraren ondoren haurren premiei erantzuteko. Sortu zen unetik, inolako bereizketarik egin gabe haurrekin jardutea izan du asmo, eta haurren eskubideak beste ezeren gainetik babestea.

[UNICEF Espainiako Batzordea](#) 1961ean sortu zen eta gaur egun Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren zereginean laguntzen duten 36 Batzorde Nazionaletako bat gara.

UNICEF Espainiako Batzordetik, haurren bizitza hobetu nahi dugu, Estatuko mugetatik harago eta mugen barruan. Horretarako, haurren eskubideak defendatzeko UNICEFek nazioartean aurrera eramaten dituen programak babesten laguntzen dugu. [Espainian](#), gainera, gure herrialdean bizi diren haurren eskubideak sustatu eta defendatzera bideratuta dago jarduna. Horretarako, hiru ekintza-mota burutzen ditugu:

- + Politika publikoei eta haurren egoerari buruzko analisisian eta ikerlanean oinarritutako [intzidentzia politikoarekin](#) zerikusia duten ekintzak.
- + [Haurren eskubideei](#) eta herritartasun globalari buruzko [hezkuntzan](#) oinarritutako ekintzak.
- + Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena [tokiko eremuan](#) sustatzea helburutzat duten ekintzak, Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren bitartez.



## Estatu Espainiarreko 17 Autonomia Erkidegoetan gaude, gure batzorde autonomikoek ordezkaturata.

Haurren [Eskubideei buruzko Hitzarmena](#) (HEH) da gure lan-esparrua, munduko nazioarteko itun berretsiena, alegia<sup>1</sup>.


Gainera, gure lan guztia dago lerrokatuta eta laguntzen du [Garapen Iraunkorrerako Agendaren \(2030 Agenda\)](#) lorpenean eta [Nazio Batuen Gutunean agindutako aurrerabidean](#).

Gure jardunetako bakoitzean hartzen dugu bizi-zikloan oinarritutako ikuspegi bat, eta aitortzen dugu lehen haurtzaroaren eta nerabezaroaren garapenak duen garrantzi berezia. UNICEFen programak **egoera ahulenean dauden haurren** oinarritzen dira, eta haien artean daude testuinguru kalteberetan bizi diren haurrak, desgaitasunen bat dutenak, hirigintza bizkorrak erasandakoak edo ingurumenaren narriadurak erasandakoak.

<sup>1</sup> Espainiak 1990ean berretsi zuen Hitzarmena (BOE, 313. zk., 1990eko abenduaren 31koa)

# Zer da Haurren Lagun diren Hiriak ekimena?





**Haurren Lagun diren Hiriak (CFCI ingelesezko sigletan) nazioarteko ekimen bat da, UNICEF buru duena. Tokiko gobernuei laguntzea du helburu, haurren eskubideak toki-mailan bermatzeko betetzen duten zereginean, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren esparruan.**

1996an jarri zuten martxan ekimena UNICEFek eta ONU-Habitat programak, Giza Kokalekuei buruzko Nazio Batuen bigarren Konferentzian ([Habitat II](#)) onetsitako ebazpena –hiriak guztiontzako leku bizigarriak izatea helburu duena– gauzatzeko. Nazio Batuen Konferentzia hartan adierazi zenez, **habitat osasungarri baten, gizarte demokratiko baten eta gobernu onaren adierazle nagusia da haurren ongizatea**. Gaur egun, [munduko 40 herrialde](#) baino gehiagotan aurrera eramaten den ekimena da.

Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren **ikuspegia da haur eta nerabe guztiek beren haurtzaroz eta gaztaroz gozatzea eta beren ahalmen osoa garatzea, eta berdintsu gauzatzea beren eskubideak bizi diren hiri eta komunitateetan**. Ikuspegi hori errealitate bihurtzeko, tokiko gobernuek eta beren bazkideek dagozkien xedeak (emaitzak) identifikatzen dituzte helburu orokorren bost esferen barruan, **[Ekimenaren Ekintzarako Esparruan](#)** definituta dauden horietan.

**Espanian 2001az geroztik ezartzen ari da ekimen hau, eta UNICEF Espainiako Batzordearen aitzindaritzaren pean garatzen da, aliatu hauekin:**

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa

Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa (FEMP)

Haurren eta Nerabeen Premia eta Eskubideetarako Unibertsitate Erakundea (IUNDIA)

Lau erakunde horiek osatzen dute **Programaren Idazkaritza Iraunkorra**, hau da, estrategia estatala definitu eta Espainian Haurren Lagun diren Hiriak aintzatespena jaso duten tokiko gobernuei buruzko azken erabakia hartzen duen organoa. Bestetik, UNICEF Espainiako Batzordean, **Ekimenaren Idazkaritza Teknikoa** da hurrei eta partaidetzari buruzko tokiko politiken unitatea.

## Bost helburu orokorrak hurrengo hauek dira<sup>2</sup>:

1. Haur eta nerabe bakoitza baloratu, errespetatu eta zuzen tratatzen da bere komunitatearen barruan;
2. Haur bakoitzaren ahotsak, premiak eta lehentasunak entzuten dira eta kontuan hartzen dira araudietan eta politika publikoetan, aurrekontuetan eta haiei dagozkien erabaki guztietan;
3. Haur guztiak dute sarbidea kalitateko funtsezko zerbitzuetara<sup>3</sup>;
4. Haur guztiak bizi dira ingurune seguru eta garbietan<sup>4</sup>;
5. Haur guztiak dute familiaz, jolasaz eta aisiaz gozatzeko aukera<sup>5</sup>.

Haurrentzako eta nerabeentzako emaitza iraunkorrak bermatzea da ekimenaren epe luzeko helburua, eta tokiko gobernuen konpromisoa da, beren aliatuekin batera, aurretik aipatutako bost helburuak lortzeko lan egitea.

**Haurren Lagun diren Hiriak ekimenean parte hartzeko ikaskuntza- eta etengabeko hobekuntza-prozesu bat bete behar da.** Zentzu horretan, ekimenaren asmoa ez da, nahitaez, aintzatespena lortu eta bere lehenengo lau urteko iraunaldian bost helburuei heltzea, emaitza irmo eta progresibo batzuk erakustea baizik, eta ondorengo urteetan landuko diren helburuen hedadura zabaltzea.



## Helburu horiek Haurren Lagun den Hiri ekimenaren funtsezko parametroak betetzen dituela bermatzeko balio dute. Hauek dira parametroak:

1. Haurrentzako emaitza frogagarriak, datuetan oinarrituak, helburuen eremu batean baino gehiagotan, haurren eskubideen ikuspegi global bat bermatzearen;
2. Haurren eta nerabeen partaidetza esanguratsua eta inklusiboa;
3. Frogatu daitekeen konpromisoa, ekimenean parte hartzen duen tokiko gobernuek bere politiketan eta ekintzetan haurren kontrako diskriminazioa errotik kentzeko.

<sup>2</sup> Horri buruzko informazio zabalagoa 1. Baliabidea dokumentuan.

<sup>3</sup> Barnean hartzen ditu laguntza medikoa, hezkuntza, nutriziorako laguntza, garapena eta lehen haurtzaroko hezkuntza, justizia eta familiarri babesa.

<sup>4</sup> Barnean hartzen ditu esplotazioaren, indarkeriaren eta abusuaren aurkako babesa, ur garbia, saneamendua eta higijenea eskura izatea, hirigintzaren diseinu seguruak, eta haurren premien, mugikortasunaren eta kutsadurarik eta hondakinik ezaren ikuspegia.

<sup>5</sup> Barnean hartzen ditu jarduera sozialak eta kulturalak, eta lagunekin elkartu eta jolasteko leku seguruak.



# 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak



**Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak, 193 herrialdek 2015ean onetsiak, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu (GIH) ezartzen ditu. Hala, herrialde horiek, haien errenta eta giza garapenaren maila gorabehera, konpromisoa hartzen dute helburu horiek 2030erako betetzeko, pertsona guztiak kontuan hartuta eta modu jasangarri eta ekitatibo batean beteta.**



Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) haurren eskubideak sustatzen dituzte, eta aukera bat adierazten dute haur guztiak babesteko, inor atzean ez uztearen kontsignaren pean. Horregatik, GIHak aukera bat dira tokiko gobernuentzat ere, eta esparru bateratzaile bat eskaintzen dute gobernu-maila desberdinek egiten dituzten ahaleginetarako, baita beste herrialde batzuekin eta, orokorrean, nazioarteko komunitatearekin ere.

Haurren ongizatea bermatzea funtsezko baldintza da 2030 Agenda betetzeko. Eta haurrak egoera ahulenean daudenak bereziki erdigunean kokatzen dituen eredu sozial eta politiko baten alde egiten den apustu bat da GIHak gauzatzea.

Haurren Lagun diren Hiriak ekimena estu lotuta dago GIHeekin eta tokiko gobernuari 2030 Agenda ezartzen laguntzea du helburu, toki-mailan haurren, nerabeen eta familien ongizatearekin lotutako arazoei modu integral batean heltzeko.

Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren eta 2030 Agendaren arteko lotura horrek, beraz, GIH helburuen isla bat izateaz gain, tokiko garapenean arreta jartzea adierazten du.

# Haurren Lagun diren Hiriak aintzatespena lortzeko baldintzak



## Deialdiaren baldintzak, hautagai berriei nahiz **berritzekoei** aplikatzekoak, honako hauek dira:

- + Tokiko gobernu bat, udal bat, mankomunitate bat, uharteko kabildo bat, uharteko kontseilu bat edo bestelako bat izatea Espainiako Estatuko toki-administrazioko sistemaren barruan, eta aintzatespena lortzeko UNICEF Espainiako Batzordeari eskatzea, horretarako [erregistro](#) bat eginez.
- + **Haurren eta nerabeen partaidetza-organo** aktibo bat izatea, tokiko gobernuak sustatua, babestua eta aintzatesia 2020ko otsailaren 20aren aurretik, eta organo horrek bere jarduera hasia izatea, gutxienez, 2019ko udazkenean. [Dokumentuak Baliabideak 2 azalpen zehatzagoa biltzen du bere osaerari eta funtzionamenduari buruz.](#)
- + Udal osoko bilkurara (edo instantzia aplikagarria hautagaiaren tokiko araubidearen arabera) eraman izana deialdi honetan parte hartzeko eskaera –interes-gutuna– eta bere onespenerako behar den gehiengoa lortu izana. Onespen hori ezin izango da izan 2019aren aurrekoa. Eredua eskuragarri dago [3. Eranskinean](#). Dokumentu hori telematikoki entregatu behar da 2020ko otsailaren 29a baino lehen.
- + **Barne koordinazio-mekanismo** bat izatea, haurren politikaren zeharkakotasuna tokiko gobernuaren barruan ezartzeko helburuz. [Dokumentuak Baliabideak 3 azalpen zehatzagoa biltzen du bere osaerari eta funtzionamenduari buruz.](#) Eratua eta jardunean izatea 2020ko otsailaren 29a baino lehen.

**Mariak Avilesen haur eta nerabeen parte-hartzea nola dinamizatzen duten azaltzen digu. [Ezagutu bere esperientzia!](#)**

Haurren Lagun diren Hiriak aintzatespena lortzeko –lau urteko aldirako– nahitaezkoa da deialdirako eskabidea betez prozesuari hasiera ematea, UNICEF Espainiako Batzordeak horretarako gaitutako online plataforma baten bitartez –dokumentazioa ez da paperean onartuko–.

<sup>6</sup> Bere jarduera hasia izateak esan nahi du: bilerak ikastetxeekin, haurren ordezkarien hautaketa, lan-bilerak haurrekin eta nerabeekin, eta abar.


<sup>7</sup> Haur eta nerabeen parte-hartze organoaren (OPIA) parte diren haur eta nerabeei zuzendutako asebetetze inkesta egiteko gomendioa barne hartzen da.

- +
- Diagnostiko** bat izatea, tokiko gobernuaren eremu geografikoan bizi diren haurren eta nerabeen egoerarena, haiei arreta emateko dituzten baliabide eta zerbitzuena, eta garrantzizkotzat jotzen diren alderdi guztiena. Diagnostikoak aukera emango du haurren eta nerabeen inguruko gaietan Tokiko Gobernu aurre egiten ari zaien erronka nagusiak nabarmentzeko. [Dokumentuak Baliabideak 4 azalpen zehatzagoa biltzen du diagnostikoaren lanketari buruz.](#) Erakunde lokal eskatzaileek 2020ko ekainaren 30era arteko epea izango dute diagnostikoaren dokumentua telematikoki entregatzeko eta haurren tokiko adierazleei buruzko online formularioa betetzeko.
- +
- Aurretik adierazitako eta partaidetzaz landutako diagnostikoan oinarrituta, **haurren eta nerabeen tokiko plan bat izatea dagokion aurrekontu-aurreikuspenarekin.** Planak adierazleak bildu behar ditu bere ezarpenaren segimendua errazteko. [Dokumentuak Baliabideak 5 azalpen zehatzagoa biltzen du bere lanketari buruz.](#) Baldintza honi lotutako informazioa online plataforman entregatzeko eta landutako dokumentua igotzeko azken eguna 2020ko ekainaren 30a izango da.
- +
- Udal osoko bilkuran** (edo instantzia aplikagarria hautagaiaren **tokiko araubidearen arabera**) **tokiko gobernuak landua duen haurren eta nerabeen tokiko plana onestea.** [Eredua 4. Eranskinean dago eskuragarri.](#) Entrega-data: 2020ko irailaren 30era arte.
- +
- Gardentasun** ariketa bat egitea **eta gobernu ona eta kontu ematea sustatzea**, tokiko gobernuaren web-orrian **etengabe** argitara emanez diagnostikoa eta haurren eta nerabeen tokiko plana, herritarrek edo edozein pertsona eta erakunde interesatuk kontsultatu ahal izan ditzaten. Baldintza honi lotutako gehieneko epea hau da: 2020ko irailak 30.

**Fuerteventura irlako  
Kabildoak erronka bat  
planteatu zuen 2017an:  
irlako haur eta nerabeen  
errealitatea sakonki  
ezagutzera eman beronetik  
abiatuta euren haurren  
plana diseinatzeko.  
[Horrela egin zuten!](#)**

## Beren aintzatespena **berritzeko** eskatzen duten tokiko gobernuen kasuan, **aurreko baldintzei ondokoak** gehituko zaizkie:

- + Aintzatespena 2016ko deialdian lortu edo berritu izana.
- + 2018an behar bezala entregatu izana haurren tokiko planaren (HNTP) aurrerapenaren bitarteko segimendu-txostena.
- + Tokiko haurren populazioaren ongizatea hobetzeko **lortutako aurrerapenak frogatzea**, bertako HNTPa ezarri izanari esker. Informazio horrek bitarteko txostenetik hasi eta 2018ra artekoa izan behar du, eta berau entregatzeko eredia **1. Eranskineko** 9.1. atalean aurkituko duzu.
- + **Haurren eta nerabeen partaidetzan lortutako aurrerapena** frogatzea. Hau da, frogatu egin behar da, datu bidez, kontuan hartzen direla haurren iritziak eta proposamenak tokiko gobernuen erabakietan.
- + HNTPa ezartzeko helburuz aurreko aldiaren **exekutututako aurrekontuaren** berri eman behar da.
- + Dinamismoa frogatu behar da **barne koordinazio-mekanismoen** funtzionamenduan, baita aurrerapenak ere HNTPa politika publikoaren erreferentziazko dokumentu bat izan dadin tokiko gobernuaren eremu guztietan, haurrak tokiko gobernuko politiken erdigunean, eta zeharka, kokatzea lortzeko.



**Gogoan izan:**  
Informazioa kudeatzeko tresna erabilia (ikus **1. Eranskina**) eta dokumentazioa igota bi kasuetarako gaitutako online plataforman burutuko da aintzatespena lortzeko edo berritzeko prozesua.

## Ondoko taulan laburbiltzen dira baldintzak, dagozkien edukiekin eta datekin:

Baldintza	Norentzat	Gehienezko entrega-data	Zertan datza	Non	Loturiko nahitaezko dokumentazioa	Ekintza UNICEF Espainiako Batzordearen aldetik
Hautagaitzaren erregistroa	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	2020ko urtarrilak 31	Tokiko gobernuaren kontaktu-informazioa ematea	<a href="http://www.ciudadesamigas.org">www.ciudadesamigas.org</a>	Bat ere ez	Plataforma digitalerako sarbidea ahalbidetu
Haurren eta nerabeen partaidetza-organo bat (HNPO) eta barne koordinazio-mekanismo bat izatea	Berriak	2020ko otsailak 29	Organo horien osaerari eta funtzionamenduari buruzko informazioa ematea, informazioa kudeatzeko tresnaren 3. atalean aurkituko dituzun galderei erantzunda ( <a href="#">1. Eranskina</a> ).	Online plataforma	Bat ere ez	Gobernu lokalak deialdian parte hartzen jarraitu ahal duen informatu
	<b>Berritzeoak</b>	2020ko otsailak 29	Dinamismoa frogatzea haurren eta nerabeen partaidetza-organoan eta barne koordinazio-mekanismoan: - HNPOk lortutako emaitzei buruz informatzea, hau da, datu bidez, haurren iritziak eta proposamenak haiei dagozkien erabakietan, tokiko gobernuak hartutakoetan, kontuan hartzen direla erakustea. - Barne koordinazio-mekanismoaren funtzionamenduari eta dinamismoari buruz informatzea, baita bere aurrerapenei buruz ere, udal eremu guztiek konpromisoa hartzea lortzeko haurren eskubideen betearazpenarekin. Informazioa kudeatzeko tresnaren 3. atalean aurkituko dituzu ( <a href="#">1. Eranskina</a> ) alderdi horiei buruzko galderak.	Online plataforma	Bat ere ez	Gobernu lokalak deialdian parte hartzen jarraitu ahal duen informatu
Haurren Lagun den Hiri izateko hautagaitzarako babes politikoa izatea	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	2020ko otsailak 29	Udal osoko bilkurara, edo beste tokiko gobernu batzuetan baliokide direnetera, aintzatespena eskatzeko interesa helaraztea, bertan onetsia izan dadin. Plataforma digitalera ziurtagiri bat igotzea, aurrekoa egiaztatuko duena (ereduak eskuragarri dokumentu honetako <a href="#">3. Eranskinean</a> ).	Online plataforma	Hautagaitzari buruzko mozioaren baimen ziurtagiria, udalerriko osoko bilkurako idazkaritza duen pertsonak behar bezala sinatua (edo baliokidea tokiko gobernuaren kasuan).	Gobernu lokalak deialdian parte hartzen jarraitu ahal duen informatu
Diagnostiko bat egitea tokiko gobernuaren eremu geografikoan bizi diren haurren eta nerabeen egoerari buruz	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	Gehienez 2020ko ekainaren 30era arte	Haurren eta nerabeen egoera aztertzea eta arreta berezia jartzea egoera ahulenean dauden haurrengan, baita tokiko gobernuak haien alde erabilitako baliabideak eta burututako ekintzak ere. Informazio horrek datuetan (adierazleak) oinarrituta egon behar du. Adierazle-sail bat eskaintzen da informazioa kudeatzeko tresnaren 6. atalean erabil daitekeena ( <a href="#">1. Eranskina</a> ).	Online plataforma	Dokumentu diagnostikoa	Emandako informazioa balioestea

Baldintza	Norentzat	Gehienezko entrega-data	Zertan datza	Non	Loturiko nahitaezko dokumentazioa	Ekintza UNICEF Espainiako Batzordearen aldetik
Estrategia bat diseinatzea epe luzera (3-6 urte) dagokion aurrekontu-aurreikuspenarekin, tokiko haurrak eta nerabeak aurre egiten ari zaien erronka nagusiei erantzuteko, hots, Haur eta Nerabeen Tokiko Plana	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	Gehienez 2020ko ekainaren 30era arte	Helburuak, xedeak, neurriak, ekintzak, arduradunak, segimendu-sistema eta baliabideak ezartzea, tokiko gobernuari aukera emango diotenak bere eremu geografikoan bizi diren haurren eta nerabeen bizitza positiboki eraldatzeko. Tokiko gobernuak, bere xedeen eta/edo helburuen (lorpenak) aurrerapenak neurtzeko, informazioa kudeatzeko tresnaren 6. atalean ( <b>1. Eranskina</b> ) aurkituko duzun adierazle-saila erabili ahal izango duzu. Adierazle horiez gain, aurreikusitako neurrien segimendua eta ebaluazioa hobetzen lagunduko duten nahi adina adierazle erabil ditzake tokiko gobernuak.	Online plataforma	Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren dokumentua	Emandako informazioa balioestea
	<b>Berritzeoak</b>	Gehienez 2020ko ekainaren 30era arte	Berrietarako adierazitakoez gain, berritzeoak direnek baldintza hauek bete beharko dituzte: HNTParen ezarpenari eta lortutako emaitzei buruzko informazioa ematea. Planaren segimendu-sisteman bildutako adierazle berak erabiltzea gomendatzen da. Informazio horrek bitarteko txostenetik hasi eta 2018. urtera artekoa izan behar du, eta berau entregatzeko eredu <b>1. Eranskineko</b> 9. atalean aurkituko duzu (9.1. galdera). HNTPa ezartzeko helburuz aurreko aldian exekutatuak aurrekontuaren berri eman behar da.	Online plataforma	Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren dokumentua	Emandako informazioa balioestea
Haurren eta nerabeen tokiko plana osoko bilkuran onestea, tokiko gobernuan ordezkariak duten talde politiko desberdinen babesarekin	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	2020ko irailak 30	Tokiko gobernuak idazkariaren ziurtagiria, onespenez hori jasotzen duena, bozketako emaitzak espresuki aipatuta. Udal osoko bilkurara (edo beste tokiko gobernu batean baliokide dena) helarazi beharreko mozioaren eredu bat aurkituko duzu, baita lotutako ziurtagiriarena ere, oinarri hauetako <b>4. Eranskinean</b> .	Online plataforma	HNTPa osoko bilkuran onetsi izanaren ziurtagiria	Onesteko proposamen teknikoak Haurren Hiri Lagunak programako Idazkaritza Iraunkorrera helarazi beharrekoak
Gardentasunez jardutea eta gobernu ona eta kontu ematea sustatzea	Berriak eta <b>berritzeoak</b>	Gehienez 2020ko irailaren 30era arte	Herritarren helmenean jartzea diagnostikoa eta haurren eta nerabeen tokiko plana. Informazioa kudeatzeko tresnaren amaieran galdera bat dago eta bertan adierazi ahal izango duzu internet helbidea (url) behin betiko bertan egon dadin eskuragarri.	Online plataforma	Bat ere ez	Emandako informazioa balioestea



## Aurretik adierazitako baldintzez gain, ekimenak alderdi hauek kontuan hartuko ditu:

- + Tokiko gobernuek **benetako konpromisoa erakutsi ahal izatea bere jurisdikzioko eremu geografikoan bizi diren haurren eskubideak sustatzeko, betetzeko, babesteko eta bermatzeko.** Horretarako, besteren artean, agerian utzi eta bere egingo du haurren eta nerabeen erronka eta premia nagusien aurrean ekiteko konpromisoa; sustatu eta erraztu egingo du eskubideen arloko prestakuntza bere langileen artean; aktiboki parte hartuko du haurrei eta nerabeei dagozkien gaiei buruz iritziak trukatu eta eztabaidatzeko guneetan; ekintzak eramango ditu aurrera diskriminazioak ezarritako edozein oztopo ezabatzeko, eta sustatu egingo du eskubideei eta bizikidetzari buruzko sentsibilizazioa herritarren artean.

### GARRANTZITSUA!

UNICEF Espainiako Batzordeak eta Idazkaritza Iraunkorreko kideek hautagaiak baztertu ditzakete, euren iritziak, tokiko gobernuek dituen haurtzaroaren inguruko politikak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin kontraesan garbian behin eta berriz daudela uste badute.

- + Tokiko gobernuek **kanpoko eragileekin koordinazio-mekanismo bat** sustatu eta bertan buru izatea, administrazio publiko desberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren erraztea, baita erakunde sozialekin, entitate publiko eta pribatuekin eta bestelako erakunde batzuekin ere, haurren eta nerabeen alde artikulatutako ekintzak ezartzeko, eta beste eragile batzuen ekarpenak jasotzeko diagnostikoaren eta haurren eta nerabeen planaren lanketan. Mekanismo hori lehendik dauden egituretatik abiatuta eraiki daiteke, edo sortu berri bat izan daiteke.

**Malaga eta Pasaia kanpo agenteekin koordinatutako espazioak bultzatzen esperientzia handia dute.**  
**Ezagutu nola egiten duten!**

## Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren informazioa kudeatzeko tresna (1. Eranskina)

Tresna hau informazioa aldizka biltzeko sistema bat da, datuetan eta adierazleetan oinarritua, eta aukera ematen du Haurren Lagun den Hiri izateko hautagai den edo aintzatespen hori dagoeneko lortua duen tokiko gobernu baten egoeraren, ekintzen, baliabideen eta egituren ikuspegi zabal bat izateko. Datu horietako bakoitza Garapen Iraunkorrerako Helburuetan bildutako xede batekin edo gehiagorekin lotuta dago.

Tokiko gobernu bakoitzari aukera emango dio alderdi hauei buruzko informazioa erregistratzeko: bere baliabideak eta ekintzak, diagnostikoa, haurren eta nerabeen tokiko plana, eta bere lorpenak eta egin duen inbertsioa.

Informazio eta adierazle horiek tokiko gobernuak erabil ditzake diagnostikoaren dokumentua eta HNTPa lantzeko (Excel formatuan deskargatu ahal izango da informazioa). Etengabe eguneratzen doan tresna da, tokiko gobernu bakoitzak elikatu eta beteko duena aintzatespena lortzeko bere hautagaitza aurkezten duen unean, bere bitarteko txostena aurkezten duenean eta berritzeko unean. Gainera, erabiltzaile bakoitzak kontsultatu ahal izango du aintzatespenaren indarraldian. Tresna hau aldizka elikatzen denez gero, tokiko gobernuak aukera izango du, besteak beste, denboran zehar izan dituen lorpenak kontsultatzeko, aukeratu dituen adierazleen eboluzioa ikusteko, informazioa deskargatzeko, txostenak lantzeko, eta bere ekintzen eta GIHen bere betearazpenaren berri emateko. Horrela ezagutu ahal izango ditu bere herriko haurren eta nerabeen bizitzan lortutako inpaktua eta aldaketa.



### **OHARRA**

**Informazioa eta dokumentazioa UNICEF Espainiako Batzordeari emango zaio gaztelaniaz eta soilik horretarako gaitutako online plataformaren bitartez.**

# Hautagaien balorazio- irizpideak



## UNICEF Espainiako Batzordeak balioetsiko du hautagaiak haurren eskubideen ikuspegia izatea. Horretarako, tokiko gobernu hautagaiak emandako informazioa aztertuko du Haurren Lagun diren Hiriak<sup>8</sup> informazioaren kudeaketa-tresnaren bitartez. Hauek izango dira erabiliko diren balorazio-irizpideak<sup>9</sup>:

### Haurren eta nerabeen partaidetza esanguratsua, tokiko gobernuak:

- Haurren eta nerabeen partaidetza sustatzea, herritar aktibo eta zuzenbideari lotutako subjektu diren aldetik haiei dagozkien gai guztiei buruz duten iritzia askatasunez adierazteko eskubidea kontuan hartuta, haien iritzia behar bezala aintzat hartuz, hau da, haurren eta nerabeen adinaren eta heldutasunaren arabera.
- Haurrei eta nerabeei informazioa ematea, entzutea, eta haien oharrak eta proposamenak kontuan hartzea, eta haien segimenduaren eta egoeraren berri ematea.
- Haurren eta nerabeen partaidetza izatea, errealitatearen diagnostikoaren diseinuan eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren diseinuan.
- **Berritzekoak:** haurrei eta nerabeei egin dituzten ekarpenen kontu ematea.
- Aurrekontu bat esleitzea, haurren eta nerabeen partaidetza-organora zuzendua.

### Emaitza frogagarriak, bertan bizi diren haurren eskubideak gauzatzean:

- Tokiko gobernuak haurren politikaren segimendu-sistema bat izatea, adierazleetan oinarritua.
- Tokiko gobernuak sistema bat diseinatzea, horren bidez bere tokiko politikaren aurrerapenen kontu emateko Haurren Hiri Lagunak ekimenak definitutako helburuetan. Hau da, tokiko gobernuak ekimenean planteatutako helburuen egoerari, jarduerari eta emaitzei buruz informatu ahal izatea, bere diagnostikoan adierazten diren eta bere HNTPan biltzen diren adierazleen bitartez. Informazioa bildu eta kudeatzeko online tresnan, tokiko gobernu hautagaiak adierazle-sail bat aurkitu ahal izango du, eta adierazle horien artean bere errealitateara egokitzen diren horiek aukeratu ahal izango ditu (eskuragarri daude [1. Eranskineko 6. atalean](#)).<sup>10</sup>
- Aintzatespena **berritu** nahi duten tokiko gobernuak lortu dituzten emaitzak frogatzea, beren haurren planean ezarritako helburuen adierazleen bitartez, edo horien ezean, beste ebidentzia batzuen bitartez.

<sup>8</sup> UNICEF Espainiako Batzordeak sarbidea emango dio plataforma digital honetara tokiko gobernu hautagai bakoitzari.

<sup>9</sup> Ebaluazioa gertaeren eta balioen konbinazio batean oinarritzen da (berez ontzat, desiragarritzat, garrantzizkotzat eta baliagarritzat hartzen diren printzipioak, ezaugarriak edo gaitasunak, adibidez, «denekin zuzen jokatzeari») interbentzio baten merezimendua neurtzeko (hau da, programa edo politika batena). Peersman, Greet. Ebaluazio Irizpideak. UNICEFeko Innocenti Ikerketa Zentroak. Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa (UNICEF), 2014ko iraila. <https://www.unicef-irc.org/publications/pdf/MB3ES.pdf>

<sup>10</sup> Tokiko gobernuak, bere errealitateara egokitzen diren adierazleak aurkitzen ez baditu, UNICEF Espainiako Batzordeari eska diezaioke beste batzuk sortzea. Ekintza hau online plataformaren barne egiten da.

**Ekitatearen ikuspegia, tokiko gobernuak garatu eta planifikatzen dituen ekintzetan.** Hau da, egoera ahulenean dauden haurrengan arreta jartzea, atzean utzi ez ditzaten. Hori aztertzeke kontuan hartuko dira:

- Haurren eta nerabeen egoerari buruzko datuak biltzen direla, identifikatzeko aukera ematen dutenak egoera ahulenean dauden haurrak eta nerabeak, beren jatorriagatik, talde edo gutxiengo etniko batekoak izateagatik, sexuagatik, orientazio sexualagatik edo genero-identitategatik, egoera sozioekonomikoagatik edo desgaitasunen bat izateagatik.
- Bere neurriek eta ekintzek lehentasun berezia ematen dietela egoera ahulenean dauden haur eta nerabe horiei.
- Laguntza-sistema bat, jardueretarako sarbide-prezioetan deskontuak edo bestelakoak eskaintzen dituela, kalteberatasun-egoeran edo halakorik bizitzeko arriskuan dauden haurrei lehentasuna ematen dietena.
- Neurriak eta ekintzak dituela arrazismoari, xenofobiari eta matxismoari aurka egiteko, edo tokiko gobernuaren eremu geografikoan bizi diren haurren eta nerabeen kolektibo espezifiko baten aurkako beste edozein diskriminaziori.

**Gobernantza eta baliabideen esleipena, haurren ikuspegia jasotzen duena.** Horretarako, aztertu egingo da tokiko gobernuak:

- Haurren politikaren koordinazio eta zeharkakotasunerako benetako gune irmotu bat duela barnean.
- Egoeraren diagnostikoa eta haurren eta nerabeen tokiko plana partaidetza bidez diseinatu direla, hau da, tokiko gobernuaren barruko eragileek, gizarte-erakundeek, Guraso Elkarteek eta beste batzuek parte hartuta, eta betiere haurrak funtsezko eragiletzat hartuta erronkak identifikatzeko prozesuan, estrategiaren diseinuan eta ekintzei lehentasuna emateko garaian.
- Behar adina aurrekontu bideratzen duela haurren politikan aurreikusitako ekintzak ezartzera.
- Bere langileen –politikariak nahiz teknikariak– gaitasunak sendotzen dituela haurren eskubideekin lotutako gaietan.
- Aztertu eta, behar izanez gero, aldatu egiten dituela ordenantzak eta beste araudi, plan edo proiektu batzuk bere eskumenekoak haietan haurren eskubideak barnean hartzeko helburuz.
- Tokiko aliantzak sortzeko, kontu emateko eta gardentasunez jokatzeko mekanismoak dituela, Haurren Tokiko Politika planak, neurriak eta ekintzak burutzerakoan.

Eskatutako informazioa aztertu ahal izateko, aurretik aipatutako irizpideak kontuan hartuta, informazioa kudeatzeko tresnaren bidez ([oinarri hauetako 1. Eranskinean](#)) tokiko gobernu hautagai bakoitzak eman duen informazioa erabiliko du UNICEF Espainiako Batzordeak.

Horrez gain, kontuan hartuko da adierazleen (tresnaren 6. saila [1. Eranskinean](#)) kopurua, hau da, tokiko gobernuak informazioa eman duen horiena. Horretarako, ahal den neurrian, adierazle horiek Haurren Hiri Lagunak ekimeneko 5 helburuak bete ditzaten gomendatzen da.



Adierazleen kopurua aldatu egiten da tokiko gobernuaren eremuko biztanle-kopuruaren arabera, eta hautagai berriak edo aintzatespena berritzeko aurkez-  
tuak izatearen arabera. Kopuru hori honela finkatzen da:

Hautagaitza-mota	20 mila biztanle baino	20 - 50 mila biztanle	50 - 100 mila biztanle	100 - 500 mila biztanle	500 mila biztanle baino
Berriak	10	15	20	25	30
Berritzeak	15	20	25	40	50

**Ebaluazio-bisitak.** Deialdiaren ebaluazio-aldi osoan zehar tokiko gobernu hautagaia bisitatu ahal izango du UNICEF Espainiako Batzordeak, hautagaitza zuzenean balioesteko, baita bertako partaidetza- eta koordinazio-organoak eta tokiko gobernuak haurren eta nerabeen alde burututako ekintzak zuzenean ezagutzeko ere. Bisita eginez gero, berekin dakarren kostua tokiko gobernu hautagaiak hartuko du beregain. UNICEF Espainiako Batzordeak aldeztu aurretik emango dio bisitaren berri tokiko gobernuari, egokiro koordinatzeko helburuz.

**Argibideak.** UNICEF Espainiako Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, jasotako datuei eta dokumentuei buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango die tokiko gobernu hautagaiei, berriei nahiz **berritzeak** direnei.


# Tokiko gobernuaren eta UNICEF Espainiako Batzordearen konpromisoak aintzatespena lortu ondoren



UNICEF Espainiako Batzordetik jakinaraziko dugu publikoki deialdiaren emaitza, eta interesatu guztien eskueran jarriko dugu Idazkaritza Iraunkorraren ebazpenaren akta. Ondoren, estatu-mailan egingo den sari-banaketako ekitaldira gonbidatuko ditugu lehen aldiz saritutako tokiko gobernua. **Aintzatespena berritu** zaien tokiko gobernuen kasuan, Batzorde Autonomiko bakoitza arduratuko da sarituei egingo diren ekintza publikoen berri emateaz.


## **Aintzatespena jasotzeak hainbat erantzukizun hartzea dakar berekin. Hala, hauek izango dira tokiko erakunde aintzatesiek hartu behar izango dituzten erantzukizunak:**

- 1.** UNICEF Espainiako Batzordearekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea, **2. Eranskinean** aurkituko duzun ereduaren arabera. Aintzatespena sinatzeko aldia 6 hilabetekoa izango da gehienez, berau eman den egunetik hasita; Haurren Hiri Lagunak ekimenaren Idazkaritza Iraunkorrek zehaztuko du data deialdiaren ebazpenaren aktan. Iraunaldia aintzatespenaren indarraldiaren berdina izango da, hau da, 4 urtekoa.
- 2.** Haurren eta nerabeen tokiko politika haurren eskubideen ikuspegiarekin, partaidetzan oinarrituta, diskriminaziorik gabe eta ekitatez ezartzea, lortutako aldaketak **neurgarriak, datuetan oinarrituak, eta denboran eutsiak izan daitezten, haurren egoera hobetzeko helburuz.**
- 3. Gardentasunaren eta kontu ematearen** ikuspegi batetik, tokiko gobernuak bere webgunean iraunkorki argitaratu beharko ditu deialdi honi lotutako dokumentuak, hau da, diagnostikoa eta HNTPa, baita haurren eta nerabeen partaidetza-organoaren existentziari eta funtzionamenduari eta koordinazio-guneei buruzko informazioa ere.
- 4.** Aintzatespena jaso eta bi urteren ondoren bitarteko txosten bat lantzea eta entregatzea online plataformaren bitartez.





## Bere aldetik, UNICEF Espainiako Batzordeak konpromiso hauek hartzen ditu beregain:



- Emandako aintzatespenaren berri ematea bere kanaletan.
- Bide egokiak ezartzea aintzatespenaren indarraldian laguntza emateko.
- Tokiko gobernuari, besteren artean, informazioa, prestakuntza eta sare-lanaren sustapena eskaintzea, haren lana haurren eskubideen ikuspegi batetik sendotzeko helburuz.
- Metodologiak eta prestakuntza ematea, eta eskualde eta estatu mailan haurren eta nerabeen partaidetzarako ekitaldiak sustatzea.


Dokumentu honetan bertan zehaztuko da UNICEF Espainiako Batzordeak –batzorde autonomikoetan dituen ordezkarien nahiz egoitzako langileen bitartez– **segimendu-bisitak** egin ahal izango dituela aintzatespenaren iraunaldi osoan zehar, beharrezkotzat jotzen duenean edo tokiko gobernuak berak eskatuta.

Bestalde, UNICEF Espainiako Batzordeak, baita Idazkaritza Iraunkorreko kideek ere, berentzat gordetzen dute **aintzatespena modu unilaterial batean kentzeko eskubidea**, haien iritziz tokiko gobernuak babesle gisa duen erantzukizuna betetzen ari ez bada Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotako eskubideetakoren bat urratzen denean.



# Eranskinen zerrenda

- + **1. Eranskina:** Informazioa kudeatzeko tresna Haurren Lagun diren Hirientzat.
- + **2. Eranskina:** Hitzarmenaren eredia.
- + **3. Eranskina:** Mozioaren eredia eta eskaeraren ziurtagiria deialdira aurkezteko.
- + **4. Eranskina:** Mozioaren eredia eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren onespeneraren ziurtagiria.



# Orientazio eta kontsultarako baliabideen zerrenda

- + **1. Baliabidea:** Haurren Lagun diren Hirien helburuak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.
- + **2.1. Baliabidea:** Haurren eta nerabeen partaidetza-organoa finkatu, garatu eta sendotzeko orientazioak.
- + **2.2. Baliabidea:** Haur eta nerabeen parte hartze organoko kide diren haur eta nerabeei zuzendutako asebetetze inkesta eredia.
- + **3. Baliabidea:** Barne koordinazio-mekanismoa finkatzeko orientazioak.
- + **4. Baliabidea:** Diagnostikoa lantzeko orientazioak.
- + **5. Baliabidea:** Haurren eta nerabeen tokiko plana lantzeko orientazioak.




# Kredituak

<b>Ilustrazioak</b>	Papanautas - Myriam Díaz del Campo
<b>Azala</b>	@Plataforma de Infancia-UNICEF Comité Español/2018/Hugo Palotto
<b>3. orrialdea</b>	@Plataforma de Infancia-UNICEF Comité Español/2019/Alba Lajarin.
<b>5, 30 eta 41 orrialdeak</b>	@UNICEF Comité Español/2019
<b>8. orrialdea</b>	@UNICEF Comité Español/2018/Pensar Consulting
<b>10, 18 orrialdeak</b>	@UNICEF Comité Español/2018/Pensar Consulting
<b>13, 14 eta 20 orrialdeak</b>	@UNICEF Comité Español/2019/Hugo Palotto
<b>6, 34 eta 37 orrialdeak</b>	@UNICEF Comité Español-Plataforma Infancia/2018/Pedro Timón- Pensar



*“Gure egunerokotasunean  
eragina duten arazoak konpon  
ditzaketen ideia eta proposamen  
asko ditugu egiteko”*

(Murtziako San Javier Haur  
eta Nerabeen Kontseilua).



[www.ciudadesamigas.org](http://www.ciudadesamigas.org)

Aliatuak:

